

**XEDAPENA, 2023KO URRIAREN 9KOA, OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI KUDEATZAILEARENA, ONARTZEN DUENA LAN-KONTRATU FINKOKO LANGILE IZAERA LORTZEKO ONARTUTAKO ETA BAZTERTUTAKO IZANGAIEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA, TEKNIKARI MANIPULATZAILEAREN KATEGORIAN, OSATEK-EN DESTINOA DUEN LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ.**

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 28an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, OSATEKen aldi baterako enplegua lehiaketa-oposizio bidez egonkortzeko deialdi berezi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari kudeatzaileak 2022ko azaroaren 30ean emandako xedapenaren bidez, onartu egin ziren OSATEKen destinoa duten teknikari manipulatzailearen kategorian lan-kontratu finkodun langile izateko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, zuzendari kudeatzaileak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartuko du, eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoia adieraziko du.

Azaldutako guztiagatik, eta Sozietatea Eratzeko Estatutuek langileen arloan ematen dizkidaten ahalmenez baliatuz, honako hau

#### XEDATZEN DUT

**Lehenengoa:** Onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartzea, baztertzeko-arrazoia adierazita, hala badagokio. Zerrenda hori xedapen honen eranskinetan dago.

**Bigarrena:** Xedapen hau OSATEKen webgunean ([www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/](http://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/)) eta Campo & Ochandiano enpresaren webgunean ([www.campo-ochandiano.com](http://www.campo-ochandiano.com)) argitaratzeko agintzea.

**Hirugarrena:** 5 egun balioduneko epea ematea zuzendu daitezkeen akatsak zuzentzeko, OSATEKeko zuzendari kudeatzaileari bidalitako idazki baten bidez, edo helbide elektroniko honetara:

[op-ra6578osatek@campo-ochandiano.com](mailto:op-ra6578osatek@campo-ochandiano.com); edo, bestela, posta arruntez, helbide honetara: OSATEK, S.A., Urkixo zumarkalea 36, 5. solairua, Bizkaia Plaza eraikina, 48011, Bilbao.

Bilbon, 2023ko urriaren 9an  
Zuzendari kudeatzailea

Josu Xabier Llano Hernaiz